



*El estado de las cosas de Kortatu  
(Lucha, fiesta y guerra sucia)*  
Roberto Herreros, Isidro Lopez

Lengua de Trapo. Cara B bilduma. 2013

## Borroka, festa eta gerra zikina

25 URTETIK GORA joan dira Irungo Kortatu desegin zenetik. Zeresan handia eman zuen taldeak eta gorenean zegoenean eman zuen azken agurra. Egia da Muguruza anaiek segidan abiarazi zutela Negu Gorriak taldea, eta gerizpean utzi zutela hastapenetako punk, ska eta rock proiektua, baina Kortaturi zor zaio gero etorriko zenaren hazia, proiektu honetan batutako esperientzia eta lantzen hasitako estrategia ez direlako eten; han ikasi eta planifikatutakoa garatu da.

Kortatu taldeaz landutako lehen liburua Madrilgo bi kazetarik egin dute, eta Lengua de Trapo argitaletxeak kaleratu du, disko esanguratsuei buruzko lanak landu eta argitaratzen dituen Cara B bilduma kuttunean (Aurretik Enrique Morente eta Lagartija Nick taldearen *Omega*, Los Planetas taldearen *Una semana en el motor de...*, Nacho Vegasen *Cajas de música difíciles de parar* eta Mecano 82 diskoei barrena atera eta argitaratu dituzte). Prozesu oso luzea izan da berorren gauzaz eta 2011tik 2013ra aritu ziren Euskal Herriko eta Espainiako musikari, kazetari, soziologo eta bestelako pertsonak elkarrizketatzen eta Kortatu taldearen *El estado de las cosas* diskoaren inguruko tesuinguru politiko, sozial eta musikalazalzeko kontakizuna harilkatzen.

Ez da musika talde baten ohiko biografia, helburua disko baten inguruan hausnartzea baita, baina taldea ezagutzera emateko –pasarteak ere barne– oso baliagarria izateaz gain, Euskal Herriko mugimendu



sindikalean, elkarteetan eta eta politikoan izandako esperientziak erretratatu egiten ditu; eta Ezker Abertzalearen eta mugimendu autonomoen arteko zenbait jomuga ere plazaratzen ditu. Horrez gain, GAL eta Espainiako aparatatu polizialen ustelkeria ere agerian uzten du, estatu terrorismoa, tortura nahiz narkotrafikoa berbaigaituela.

Eta horrekin guztiarekin bat, Fermin Muguruzak eta taldekideek musikaren eta politikaren gainean zuten iritzia eta lan-ildoak. Izan ere, Kortatu ordura arteko musika talde bat baino askoz gehiago izan zen, musikalki kanpotik soinu asko ekarri eta bere egin zituelako; profesionaltasun handiz talde oso landua

bilakatu zelako; Aldi berean, musikalak gailu moduan duen indarrak oso azkar jabetu zirelako eta hala baliatu zutelako.

*El Estado de las Cosas* garai jakin baten ezinbestek soinu banda da, 80ko hamarkadan Espainiako Estatu osoan parekorik ez duena. Hori erakutsi nahi izan dute egileek. Liburuaren hitzaurrea Bernardo Atxagak egin du.

Orain arte liburuan jaso gabeko musika talde interesgarri baten bitartez, gertatutakoa eta bizi izandakoa gainbegiratzeko, eta ezagutu ez dutenek deskubritzeko, aukera aparta. ■

**Iker  
Barandiaran**

